

**ESKOLAKO OHARRAK****MATRIKULAZIO EPEA**

Hurrengo urtarrilaren 18tik, astelehena, 29rarte, ostirala (biak barne), 2021/2022 ikasturterako ikasleak matrikulatzeko epea irekita egongo da.

**Eskola ikusi edo informazio gehiago nahiko bazenute, eskolako Zuzendaritzarekin hitzordua eskatu eta eskola ezagutzeko bisita gidatu bat eskainiko zaizue.**

**MATRIKULA EGITEKO**

**Lekua:** Elizalde HLHiko IDAZKARITZA (alde zentralerako hitzordua hartu 943490193 telefono zenbakira deituz)

**Ordutegia:** Goizean 9:00etatik 13:30era  
Arratsaldean 14:45etatik 16:30era  
(Beste orduren batean behar izanez gero, deitu)

**Beharrezko dokumentazioa:** Familia-liburua  
Nortasun-agiriak  
(aita, ama edo legezko tutorearena)  
Udalak emandako erroldatze agiria  
(familia unitatea)

matrikulazio  
epea zabalik

**IHOTEAK**

Laster Ihoteak izango ditugu, otsailaren 5, 6 eta 7ko asteburuan hain zuzen ere. Horregatik, prestaketa ahalik eta azkarren hasi behar dugu. Eskolan berriak diren familiek eta oraindik zaku jantziak ez dituzten familiek, beraien seme-alaben tutoreari eskatu behar dizkiete, honela guk hemendik bertatik bideratuko baitugu beharrezkoa den materiala: mozorroa egiteko zaku oihala, biesak eta kriskitinak, ondorengo prezioa dute: 6 euro ikasleentzat eta 8 euro helduentzat.

## **ESKOLA KIROLA**

Covid19ak oraindik gure eguneroko bizitza erabat baldintzatzen baldin badu ere, gure eskolako orduz kanpoko ekintzak hastea erabaki dugu familia eta irakasleok elkarrekin osatzen dugun Batzorde Iraunkorrean. Edozein informazio beharko bazenute, Alaia da koordinatzaile berria eta bere helbide elektronikoa hau da: [eskolakirola@elizalde.eus](mailto:eskolakirola@elizalde.eus).



**ESKOLA  
KIROLA**

[www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es) eta [www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus)